



BEHIN-BEHINEKO KONTRATAZIOA ETA EZKUTUKO ENPLEGUA OSAKIDETZAN

Prentsaurre honen bidez ELA-Osakidetzak egin duen azterlan baten ondorioak ezagutarazi nahi ditugu. Aztergaia euskal osasun publikoko behin-behineko kontratazioa da.

Osakidetzaren 2007ko Memorian agertzen denez, 72.528 behin-behineko kontratu egin dira urte horretan eginkizun-pilaketagatik. 2006an baino 9.750 behin-behineko kontratu gehiago egin dira 2007an, 2006an 62.778 izan baitziren, Osakidetzaren 2006ko Memoriaren arabera.

ELAk 57.197 behin-behineko kontratu aztertu ditu, hau da, Osakidetzak eginkizun-pilaketagatik 2007an egin dituen behin-behineko kontratu guztien %80. Kontratazioaren gainerako %20 ez badugu aztertu, Administrazioak beharrezko informazioa ukatu digulako izan da.

Kontratu horien iraupena hartu dugu kontuan, eta lanaldi osoko kontratuetara aldatu, horrela kalkulatu dugu zenbat langile gehiago beharko zuen euskal osasun publikoak lanaldi osoz.

Ondorioz, eta eskuratu ditugun datuak aintzat harturik, denbora osoko milioi bat baino lan-egun gehiago sartu dira (1.027.208). Horrek ematen digu aditzera sare publikoko ezkutuko enplegua, denbora osoko eta urte osoko lanaldietan banatuz, 2.814 langilez osatuta dagoela, eta modu guztiz prekarioan lan egiten dutela. Langile horiek hainbeste txandakatzen direnez, ezin zaie asistentzia-kalitate egokirik eskatu, ez baitaude baldintzarik onenetan.

Administrazioak datu-kopuru bat ezkutatu digunez, ezagutu dugun %80tik %100era estrapolatu dugu, eta hortik atera dugu benetako ezkutuko enplegua (behin-behineko kontratuez betetzen dena) 3.500 langiletik gorakoa dela (3.506).

3.506 pertsona aritzen dira eginkizun-pilaketako kontratuen bidez. Eta euskal osasun publikoan betetzen dituzten beharrianak ez dira behin-behinekoak, guztiz egiturakoak baizik.

Sare publikoaren egitura-plantilla 22.716 langilekoa da (lanpostua jabetzan dutenak), Osakidetzaren 2007ko datuen arabera. Langile horiez gain, bitarteko langileak (2.301, 2007an) eta ordezkioak daude, betegabeko kodedun plazak eta bajak betetzeko.

Administrazioak jakin badaki langile finkoekin ezin dituela bete osasun publikoko asistentzia-beharrianak, eta horregatik jotzen du behin-behineko kontrataziora, eginkizun-pilaketa duelako itxurak eginez; baina kasu gehienetan beharrian horiek erabat egiturakoak dira, hortaz, Administrazioak lege-iruzurrean betetzen du 3.506 langileren hutsunea, hots, denbora osoz eta urte osoan, egin beharko zuten lana.

3.506 pertsona horiek osasun publikoko ezkutuko enplegua dira; izan ere, behin-behineko kontratazioa denez, ez da inon zenbatzen, ezta zehazten ere; baina benetan egitura-plantillan gehitu beharko litzateke. Hori da ELAren azterlanaren ondorio nagusia.

Baina, euskal osasun publikoaren ezkutuko enpleguaren datua ez ezik, beste ondorio batzuk ere atera ditugu:

Osakidetzak ez du aditzera eman nahi zein den zehazki behin-behineko kontratazioaren helburua, eta eginkizun-pilaketako kontratuen azpian plantillaren egitura-beharrianak betetzen dira. Beraz, Administrazio publikoak berak iruzur nabarmena egiten du kontratazioan.

Kontratazioaren gardentasun-eza eta irregulartasunak agerian geratu dira, baita ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak argitaratu berri duen txosten batean, non aztertu baita Osakidetzak 2005ean egin duen kontratazio irregularraren hainbat datu.

Osakidetzaren ezkutuko enplegua zenbatekoa den jakitea funtsezkoa da, EPE (OPE) batean eskaini den lanpostu-kopurua nahikoa den ala ez balioesteko. Osakidetzak 2.500 plazako EPE bat iragarri berri du, baina ez dute kontuan hartu behin-behineko kontratazioaren datua, ezta ezkutuko enpleguarena ere.

Batetik, Osakidetzak, eta bestetik, Satse, SME eta CC.OO. sindikatuek ontzat eta nahikotzat jo dute azken akordioan, plantilla 1.132 postuz gehitzea, 2007-2009 urte bitartean. EPEaren 2.500 postu horietatik ez dakigu zenbat joango diren azkenean plantilla gehitzera (iragarritako 1.132 haiek). Baina susmoa dugu EPEaren 2.500 postu horietako gehienak ez ote diren izango baja begetatiboak betetzeko hau da, erretiroak, ezintasunak eta heriotzak betetzera; eta horiek ez dute batere gehitzen egitura-plantilla.

Aipaturiko datuak ikusita, argi dago kode berri horiek sortzeak ez duela plantilla-gehikuntzarik ekarriko, behin-behineko langileen kopuru txiki bat baino ez baitute finko bihurtuko. Bestela esanda, eginkizun-pilaketako behin-behineko kontratua duten gehienek modu prekarioan jarraituko dute lanean Osakidetzan.

Ikuspegi objektibo batetik EPE hori oso urrun dago osasun-langileen errealitatetik, hortik nekez ekingo zaio kategoria guztien gehikuntzari, eta are gehiago esango genuke, ez da baliagarria izango ezta egonkor bihurtzeko gaur egun sektorean modu prekarioan lan egiten duten gehienen egoera ere.

Gogora ekarri nahi dugu EPE hori Osakidetzak gutxiengoarekin sinatu duen azken akordioaren emaitza dela, sinatzaileek (Satse, SME eta CCOO) sektore-mahaiaren %40 baino ez baitute ordezkutzen.

Datu hori aise ahazten zaio gure lehendakariari, hala gertatu zitzaion esate baterako Legebiltzarraren Osoko Bilkuraren azken eztabaidan, han pozaren pozez adierazi baitzuen Osakidetzak gehiengoko akordioa lortu zuela, nahiz eta ordezkaritza sindikalaren eta ordezkaturako langileen %60 bazter batera utzi direla ondo baino hobeto zekien. Horrelakoak dira gure lehendakariaren, administrazio publikoaren eta erakundeen ezaugarri demokratikoak.

Bilbao, 2008ko urriaren 21a.